



EROSKETEN POLITIKA KORPORATIBOA

Konpainiak helburu informatiboekin soilik ematen du hurrengo euskarazko itzulpena, Konpainiaren webgunean eskuragarri dagoen jatorrizko dokumentu ofizialean oinarrituta. Euskarazko bertsioaren eta gaztelerazko dokumentuaren artean desadostasunik egonez gero, azken hori gailenduko da.

AURKIBIDEA

1. HELBURUA..... 3

2. IRISMENA..... 3

3. HORNITZAILEEI BURUZKO OINARRIZKO PRINTZPIOAK 3

4. JARRAIPENA ETA KONTROLA 3

5. BERRIKUSTEA ETA EGUNERATZEA..... 3

6. ONARPENA ETA HEDAPENA 4



1. HELBURUA

CONSTRUCCIONES Y AUXILIAR DE FERROCARRILES SA enpresako zuzendaritzek CAF Taldearen (hemendik aurrera, "CAF") baitan funtzionamendu homogenea izatea ahalbidetzen duten politika korporatiboak onartzeko eskumena dute gai jakin batzuen inguruan. Horretarako, beste hainbat neurritz gain, printzipio eta irizpide orokorrak ezartzen dituzte.

Erosketa Politikaren helburu nagusia da hornitzaileekiko gure konpromisoak gure interes-taldeetara proiektatzea, hornitzaileek erabaki estrategikoak hartzeko garaian parte hartzen dutela bermatuta. Horretarako, gure helburuak lortzen laguntzeko lehiakortasuna bultzatuko duten hornitzaile fidagarrien sarean oinarritzen gara.

2. IRISMENA

Politika honek CAF Taldea osatzen duten sozietate guztiengan du irismena Merkataritza Kodearen 42. artikulua xedatutakoa betez CAFek lan egiten duen jurisdikzio guztietan. Era berean, Taldeko enplegatu guztientzat da aplikagarria.

CAF Taldekoak ez diren partaidetutako sozietateen kasuan, Sozietatea saiatuko da mugak, printzipioak eta irizpideak Politika honen bidez ezarritakoekiko koherenteak izaten, kasu bakoitzean aplikagarria den legeriak xedatutakoa betez.

3. HORNITZAILEEI BURUZKO OINARRIZKO PRINTZPIOAK

Hornitzaileekiko dituen konpromisoak abian jartzeko, CAFek oinarrizko jardura-printzipio hauek hartuko ditu kontuan:

1. Hornitzaileek honako hauekin lotutako eskakizunak betetzea oinarri duten harreman komertzialak finkatzea sustatzea: giza eskubideen

errespetua, lan-baldintza duinak, etika komertziala, ingurumena, osasuna eta segurtasuna. Horiek guztiak Hornitzaileen Jokabide Kode Korporatiboan daude zehaztuta.

2. Gure erakundeko hornitzaile eta laguntzaile guztien artean aukera-berdintasuna izatea eta bete beharreko aukeraketa-irizpideetan gardentasuna bermatuko duten eta lehiakortasuna bilatzea ezaugarri duten hornitzaileak hautatzeko prozesuak zehaztea eta ezartzea.

Eskaintzak Kudeatzeko Plataformaren bidez, esleitzeko prozedurak bultzatzea eta plataforma horren eta hornitzaileen atariaren erabilera modu positiboan baloratzea. Printzipio komunek arautzen dituzten eta kalitateko, betetzeko eta bikaintasuneko kontrol zorrotzaren mende dauden harremanak finkatzea gure hornitzaileekin, herrialde bakoitzeko legegintza-esparruaren baitan.

3. Produktuak eta zerbitzuak garatzera eta hobetzera bideratutako berrikuntzaren kudeaketan hornitzaileen parte-hartzea sustatzea.

4. Hornitzaileei babesa ematea lehiakortasuna hobe dezaten, gure helburuak lortzen lagun diezaguten.

4. JARRAIPENA ETA KONTROLA

Batzorde Exekutiboari dagokio Politika hau betetzen dela zaintzea, Zuzendaritza sinatzailearen gidaritzapean. Horretarako, Erosketen Politika Korporatiboaren Garapen Eskuliburu barruan jasotako beharrezko barneko kontrol-mekanismoak ezarriko dira.

5. BERRIKUSTEA ETA EGUNERATZEA

Erosketen Politika honen helburua denboran aurrera jarraitzea da, **Ekonomia, Finantza eta Estrategia**

Zuzendaritzak aldian-aldian berrikusketa egiteko aukera alde batera utzi gabe.

6. ONARPENA ETA HEDAPENA

Politika hau 2020ko ekainaren 18an onartu du **Ekonomia, Finantza eta Estrategia Zuzendaritzak**, eta egun horretatik aurrera sartu da indarrean.

Interesdunek eta hartzzaileek **Politika** honen edukia eskuragarri izatea errazteko, **Sozietatearen** webgunean.

Data: 2021/03/24

Sinadura: Aitor Galarza

Ekonomia, Finantza eta Estrategia Zuzendaritza

HISTORIKOA	DATA
Hasierako edizioa.	2020-11
4. atala modifikatuta.	2021-03

